

Aire libreko akwarela



Eñaut Aiartzaguena Bravo

Urluma

Eñaut Aiartzaguena Bravo

urluma@urluma.eus

www.urluma.eus

📷 _urluma_

AURKIBIDEA

SARRERA	5
MATERIALA	7
PAPERA	8
PINTZELA	11
AKUARELAK	12
AIRE LIBREAN ARITZEKO (nire) MATERIALA	15
TEKNIKA	23
HEZETASUNAREN KONTROLA	25
KOLORE NAHASKETAK	33
UR TXANDAKA MARGOTZEN	39



2021-10-23

ԷՄԻՆ. Ա.

- Տառամուտի հովիտի շրջան -

SARRERA

Akuarela teknika zailtzat hartu izan da askotan eta egia esan niri ere eman izan dit buruko minik. Gaur egun ere ematen dizkit eta etorkizunean ere emango dizkidala ez dut zalantzarik. Kontrolatzen zaila den teknika da, ura dugulako giltzarri eta ura kontrolatzea sekula ez da erraza izan. Kontrolatzen zaila bada ere ulertu egin dezakegu ordea eta bere jokaerak gure probetxurako erabili.


Hurrengo orrialdeetan akuarela teknikaren oinarrizko ezagutza batzuk partekatuko ditut teknika honetan barneratu nahi duenarentzat lagungarri izan daitezen.





MATERIALA

PAPERERA



Akuarela teknikan paperak izugarrizko garrantzia hartzen du eta merezi du arlo honetan arreta pixka bat jartzeak. Paper motei buruz ari garenean gramajeari eta paperaren konposaketari buruz hitz egiten dugu, hau da, paperaren pisuari eta papera eginda dagoen materialari buruz. Gure etxeetan izan ohi dugun folio arrunt batek 80gr izan ohi ditu metro karratuko (80gr/m²) eta zelulosaz egina izan ohi da. Akuarela teknikarako ordea, paper mota hori ez da gomendagarriena. Margotzerakoan ura erabiliko dugunez paperak ur hori hartzeko adina pisu izan beharko du, lanean ari garen artean tolestu ez dadin. Hori dela eta 300gr/m² -ko papera izan ohi da erabiliiena. Konposaketari dagokionez %100 algodoiz osatutako papera hobetsiko dugu honek eskaintzen duen erresistentziagatik.







PINTZELA

Neurri, marka eta modelo ezberdinetako pintzelak aurkitu ditzakegu merkatuan, akuarela teknikarako ordea ezaugarri garrantzitsuena pintzel hauek mantendu dezaketen ur kantitatea izango da. Azalera handiak jarraian margotu ahal izateko beharrezkoa izango da pintzelek ur kopuru handia xurgatu eta mantendu ahal izatea. Mendi ibilaldietan margotzeko zein kalean zuzenean margotzeko ur depositua integratuta duten pintzelak ere badaude. Pintzel hauen alderdi positiboa urarentzako poto bat eraman beharrik ez izatea da. Aspektu negatiboen artean, ez dira neurri handiko lanak marrazteko egokienak eta zaila da pintzel hauekin akuarela pigmentu askoko zati ilun edo opakoak margotzea.

AKUARELAK



Akuarela margoetan pigmentu hautsen aglutinatzaile bezala Arabiako goma erabiltzen da. Aglutinatzaile hau oso erraz urtzen da uretan eta beraz, akuarela teknikan ia-ia pigmentua eta ura baino ez ditugu erabiltzen. Marka eta kolore tonu ezberdinak aurkitu ditzakegu merkatuan baina orokorrean hiru modutara saltzen dira hauek: Akuarela likidoa, godet edo ontzitxoetan eta tuboetan. Akuarela ontzitxoak izaten dira ohikoenak eta baita erabilgarrienak bidaiatu behar dugunetan. Dena dela tubo formatuan aurkitu ditzakegun akuareleak, margoa formatu ezberdinetan erabiltzeko aukera zabalagoa eskainiko digute, modu dentsoenetik hasi eta urez nahi beste nahasteraino.





AIRE LIBREAN ARITZEKO (nire) MATERIALA

Aire librean margotzea ez da etxean margotzea bezalakoa. Eguraldiak, zaratak, leku eroso bat aurkitu ezinak, uste gabeko bisitariak eta abar gure aldarrean eragin dezakete eta ondorioz gure lanean. Horrekin batera, kontuan hartu eguraldi hezeko egunetan akuarela lanei gehiago kostako zaiela lehortzen eguraldi lehorreko egunetan baino eta horrek gure lan erritmoan eragin dezake.

Hori dela eta gurekin eramango dugun materiala ondo hautatu beharko dugu. Motxilan pisu eta espazio jakin bat hartuko digu materialak eta horri ibilaldian zehar beharko ditugun bestelako gaiak gehitu beharko dizkiogu; Ura, janaria, mendiko arropa... Gure materiala ondo hausnartuta prestatu beharko dugu beraz.

Koadernoa

Aire librean aritzen garenean papera eramateko modu eraginkorra izan daiteke koadernoa. Tamaina ezberdinetakoak aurki ditzakegu gure beharretara errazago egokitzeko eta 300gr/m²-ko paperarekin ez dugu margoa beste aldera pasako denaren ardurarik. Hartara orrialdeak bi aldeetatik erabili ditzakegu gainera.

Zeloa edo zintza itsasgarria

Hau hautazkoa da. Papera eusteko edo margotu nahi den eremua mugatzeko erabili ohi da baina zinta jarri gabe ere berdin margotu liteke. Niri ordea irudiak koadernoko orrialdean arnasa hartu ahal izatea gustatzen zait eta baita izena jartzeko tokia gordetzea ere. Zinta horretarako baliatzen dut.

Pintzak

Pintzek eusteko balio dute. Nik bi erabiltzen ditut, papera eusteko bata eta lehortzeko eta probarako paperak eusteko bestea. Pintzei, gainera, goma zati bat diet itsatsita kontaktua egiten duten puntuetan papera ez hondatzeko.

Arkatza

Arkatz mota ezberdinak aurki ditzakegu merkatuan eta teknika hauetarako ez dugu zertan gehiegi zoratu. Mina gogorreko arkatzen bat hartuta gehiegi ez sakatzen jakinez gero, lerro argi eta finez osatuko dugu marrazkia eta erraz ezabatuko dira margotzean.

Pintzelak

Ur depositua barnean duten pintzelak erabili ohi ditut nik pintzelen atalean azaldu bezala urarentzako ontzi bat eraman beharra ekiditeko. Aire librean margotzean ez dira beti lanerako toki erosoak aurkitzen eta ontzi hori nonbait jarri beharra ez da eroso. Gainera ongi itxi beharko dugu lanak bukatu ondoren urak ihes egin ez dezan. Nire kasuan beraz, ur biltegidun bi pintzel erabiltzen ditut, lo-dixeagoa den bat lehenengo ur txandetarako eta finagoa den beste bat azken detaileak egiteko.

Akuarela kutxa

Akuarela kutxa txiki bat nahikoa izan daiteke gure lanak koloretatzeko. Metalezko kutxek plastikozkoek baino pisu gehiago duten arren erresistentzia handiagoa dute balizko golpeen aurrean eta garbitu ere errazago egiten dira.

Lehortzeko papera edo trapua

Honen helburua argia da, pintzela lehortzea. Baina momenturen batean gure lanean pilatu den gehiegizko ur kantitatea lehortzeko ere balio diezaguke. Algodoizko trapu bat erabiltzen duten auto-reak ere badiren arren nik paper xurgatzailea erabili ohi dut. Trapua erabiltzeak hondakin gutxiago sortzea suposatzen duen arren akuarela ontzitxoak garbitzerakoan ez du ura berdin xurgatzen.

Kolore probak egiteko papera

Komenigarria da kolore probak egiteko orri zatitxo bat izatea. Akuarela nahasketak ez dira berdin ikusten paletan edo paperean eta beraz ondo dator aparteko paper batean tonu egokia ote den egiaztatzea.

Errotulagailu edo luma beltza

Detaile txikietarako eta irudia apur bat errepasatzeko erabilgarria izan daiteke. Ez da gehiegi erabili behar eta hobe da kolore orbane-kin jokatzea baina aire librean ez dira beti baldintza onenak ematen (eguraldi aldaketak, denbora falta, lanerako gune deserosoak...) eta batzuetan eskertzen da azken detaile hauek modu erosoago batean egin ahal izatea.

Errotulagailu zuria

Akuarela margoetan ez da zuria erabiltzen. Ez normalean behintzat. Paperaren zuritasuna aprobetxatu ohi da kolorea gardentasun maila ezberdinetan aplikatuz irudia margotzen joateko. Alabaina, detailetxoren bat ahaztu dugulako edo ohartu gabe margotu dugulako horrelako errotulagailu bat erabilgarria izan daiteke.







TEKNIKA




HEZETASUNAREN KONTROLA

Beste teknika batzuetan materialarekin zuzenean margotu dezakegun arren akuarelan ura beharko dugu. Ura izango da pigmentua paperera eramateko bitartekoa eta beraz ur kopuruak edo hezetasunak eragin zuzena izango du lortu nahi dugun emaitza horretan. Hezetasun hori pintzelean edo paperean izan genezake eta beraz lortu daitezkeen emaitzak ugariak izango dira. Saia gaitezen sinplifikatzen.

Bustia

Paperera ura isurtzearekin bat noranahi mugitu dezakegun putzu txiki bat izango dugu bertan. Kolorea gehituz gero definitu gabe-ko orbanak gardenak lortzeko aukera izango dugu modu honetan. Orbanaren portaera aurreikusten zailena da hezetasun maila hau eta praktika handia eskatzen du bere erabileran eroso sentituko bagara. Modu hau normalean akuarela lanen hasieran, lehenengo ur txandan, erabiltzen da lehenengo kolore tonuak (argienak) kokatzeko.





Hezea

Kasu honetan ez dugu ur putzua mugitzeko aukerarik izango, kolore orbanak opakoagoak eta definituagoak izango dira baina oraindik ez dute ertz zehatzik izango. Bigarren ur txandan erabiliko dugu modu hau gure lanaren kolore gehienak kokatu eta marrazkia definitzen joateko.

Lehorra

Kasu honetan akuarelarekin lortu ditzakegun forma opako eta definituenak lortuko ditugu. Bestelako teknika batzuen ezaugarrietara (tenpera, oleoa...) gehien gerturatzen den modua da hau eta erabiltzaile hasi berriei erosoena egiten zaiena. Kolore orbanaren portaera erraz aurreikusi eta kontrolatu dezakegu. Alabaina, modu hau azken detaileetarako erabili ohi da, azken ur txandan, akuarela teknikaren gardentasunak zaildu egiten du eta kolore orban honen gainean beste koloreren bat gehitzea.





KOLORE NAHASKETAK

Lehen ere esan dugu akuarela margoetan kolore eta tonu andana aurkitu dezakegula merkatuan. Gure paletan ordea, ezingo ditugu horiek guztiak eraman. Are gutxiago aire librean margotzen gabiltzanean, halakoetan espazioa eta pisua faktore garrantzitsuak izaten direlako eta ongi pentsatu beharko dugulako zer material eraman behar dugun.

Gauzak horrela gure kolore paletan ditugun koloreekin nahasketak eginda lortu beharko ditugu gure lanak margotzeko beharko ditugun kolore tonu berriak. Egile bakoitzak bere interesen edo margotu behar duen horren arabera aukeratzen ditu paletarako koloreak.



Gure kasuan kolore lehenak izango ditugu eta beste kolore osagarri batzuk:

Kolore lehenak

Horia, magenta (arrosa) eta **cian** (urdina) koloreak dira. Kolore hauek nahastuta zirkulu kromatikoko kolore guztiak lortu litezke teorian.

Kolore osagarriak

Kolore lehenen nahasketarekin zirkulu kromatikoko koloreak sortzeko gai garen arren tonu jakin batzuk lortzea ez da erraza. Kolore osagarri batzuk hautatu ditugu nahasketa horiek errazteko.

Bisikula berdea: Euskal Herrian, aire libreko paisaietan, berdearen presentzia oso nabarmena da. Nahasketa bidez lortu beharrean beraz, komenigarria da gure paletan izatea.

Ultramar urdina: Urdin tonu iluna. Berdeak iluntzeko eta itzalak hotzak egiteko erabilgarri egingo zaigu. Kolore honekin gainera, kolore beroak apur bat "itzali" edo harmonizatu ahalko ditugu.

Itzal errea: Marroi iluna. Marroi tonu hau ere itzaletarako erabiliko dugu. Itzal beroak egin nahi ditugunerako egokia. Kolore honekin nahasketa hotzak "itzaliko" ditugu.

Paine grisa: Beltza bailitzan erabiliko dugu kolore hau. Margoa dentsitate handian hartuz gero beltzaren parekoa da baina uretan disolbatuz gero urdinerantz egiten duen gris bat geldituko zaigu itzal ilunenetarako egokia

Bisifula berdea



Itzal errea



Ultramar urdina



Paine grisa





UR TXANDAKA MARGOTZEN

Akuarelekin margotzeak lan plan bat eskatzen du ezertan hasi aurretik. Gardentasuna da akuarela teknikaren ezaugarri nagusienetako bat eta horrek margolana baldintzatzen du. Ezingo dugu kolore ilun baten gainean argi batekin margotu, hortaz, tonu argienetatik ilunenetarako ordenan margotu beharko dugu.

Planifikazio hau ur txanda ezberdinetan ordenatuko dugu papelean edo pintzelean izan dezakegun hezetasunari neurria hartuz. Txanda bakoitzak hartuko digun denbora tartea ezberdina izango da kasu bakoitzean eta beraien arteko mugak ere lausoak izan daitezke batzuetan baina ideia orokor bat egiteko balioko digu.

1. ur txanda

Lehenengo ur txanda honetan gure irudiko kolore tonu orokorrak identifikatuko ditugu. Zuriuneak margotu gabe utzita gainerako eremuak koloreztatzen hasiko gara detailerik egiten saiatu gabe. Paperaren eta pintzelaren hezetasuna kontrolatuz gure irudian urrunen edo desenfokatuen dauden formak margotzeko unea da.





2. ur txanda

Ur txanda honetan detaile gehiago sartuko ditugu eta kolore tonu ilunagoak. Marrazkia itxura hartzen hasiko da baina tentuz ibili beharko gara argiuneak ez estaltzeko. Gure irudian gertuago edo fokatuago dauden formen txanda da hau.

3. ur txanda

Detaileen txanda da hau, margoa mardulen edo dentsoen hartuko dugun momentua. Gure irudiko gune ilun eta definituenak marraztuko ditugu txanda honetan, ia apenas urik erabili gabe.





Azken ukituak

Pintzel txiki edo errotulagailu fin batekin gure irudia errepasatzeak bizitasun gehiago eman diezaioke egin dugun lanari. Errotulagailu zuri batekin edo tenperarekin argiune txikiren batzuk egiteko ere baliatu dezakegu une hau. Autore batzuek hau “tranpa” egitea dela esaten dute eta beste batzuek lasai asko erabiltzen dute beren lanetan. Egia da zuria gainetik margotuz gero modu opakoan irudiari nabaritu egiten zaiola horregatik errekurtsio hau kontu txikietarako baino ez da erabili ohi.

Urluma

Eñaut Aiartzaguena Bravo

urluma@urluma.eus

www.urluma.eus

 [_urluma_](https://www.instagram.com/_urluma_)